




TOMAHAWK misilak izan dira Golkoko gerran lehen protagonistak. Itsaso Gorrian, Golko Pertsikoan eta Aden-eko Golkoan kokatutako EEBBtako gerrauntzietatik horrelako ehun misil baino gehiago jaurti dituzte Iraken aukeratutako helburuetara. 2.400 kilometrotako tiramena daukate makina hauek, eta bidaia horren ondoren, helburutik 280 metro baino


urrunago ez erortzeko ziurtasuna daukate (militarren arabera). Lur edo itsasgainetik oso altuera gutxira egiten dute hegan, 50 bat metro, eta radarrek ez dituzte harrapatzen. Leherkari konbentzionala zeramaten oraingo honetan 1983an sortutako misil hauek, baina 200 kilotoitako buru nuklearrak eramateko gai dira, hau da, Hiroshiman eroritakoaren potentzia hamar aldiz.



Exilioko kuwaitiarrek pozez hartu dute 'Basamortuko Ekaitzaren' hasiera. Irudiko hauek Bahrain-en daude ingelesez idatzitako bertako egunkari bat irakurtzen. «Gerra martxan da. Kuwaiten askapena hasi da», diote titularrok. Inbasioa baino lehenago, hiritar kuwaitiarrak Kuwaiteko biztanlegoaren % 30 ziren; gainerakoak langile atzerritarrak ziren.



EEBBtako soldaduentzat, dena primeran!



Otoitza, gerra aurretik: EEBBtako Wisconsin untziko marinel bat. Untzi honetatik eta beste batzuetatik bota dituzte Tomahawk misilak.



«Moses-en partez, Saddam-entzat» dio bonba erraldoi horrek. Saddam-en partez Moses-entzat, momentuz gauza gutxi; eraso kimikoa ez da gertatu oraindik, gas maskarak ipini arren ez dira beharrezkoak izan.

